

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Jendearentzat irekirik dago energia garbiari buruzko kartela aukeratzeko bozketa

*Otsailaren 5era arte webgunean bozkatu ahal izango da aukeraturiko zortzi lanetatik bat*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 16

Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak antolatu duen Margotu zure energia garbia lehiaketa herritarren partaidetzara irekiko da. Asteartetik gehien atsegin duten kartela bozkatu ahal izango dute [webgune honetan](#). Aurre aukeraturiko zortzi lanen artean aukeratzeko bozketarako epea otsailaren 5ean amaituko da.

Aipaturiko webgune horren bitartez, 13 urtetik gorako pertsona bakoitzak behin bozkatu ahal izango du Epaimahaiak finalista gisa aukeraturiko zortzi kartelen arteko baten alde. Bozketan parte hartzeko nahikoa izango da bi klik ematea eta abizena eta jaiotze data sartzea.

Argitaratu gabeko jatorrizko 80 lan aurkeztu dira energia eredu berrirako trantsizioaren oinarri diren printzipioak hedatu nahi dituen lehiaketaren [lehen ediziora](#). Bertan, bat egingo dute energia eraginkortasunak, gizarteko sektore guztiek energia berriztagarrien garapenean izan behar duten partaidetzak, eta mugikortasun iraunkorraren abantailen hedapenak, atmosferara igortzen diren gas kutsagarriak murrizteko helburuarekin, Nafarroako Energia Planean (NEP-PEN2030) eta Klimaren Aldaketarako Ibilbide Orrian (KAIO-HRCC) jasotzen den bezala.

Lan irabazlearen egileak bizikleta elektriko bat jasoko du, eta lana formatu handian egingo da, Garapen Ekonomikoko Departamentuaren egoitza den Tomás Caballero Parkeko eraikinaren teilatu-lauan dagoen instalazio fotovoltaikoan erakusteko.

Horrez gain, lan sarituaren ikastetxeak, instalazioetan aurrezteko eta energia eraginkortasuna lortzeko 1.050 euroko balioa duten zenbait elementu jasoko ditu.

Lehiaketan DBHko 3. eta 4. mailako, Batxilerreko 1. eta 2. mailako, Oinarrizko LHko eta Erdi Mailako Heziketa-zikloetako ikasle gazteek hartu dute parte.

Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusitik lehiaketaren bozketan parte hartzera animatu nahi da. Izan ere, Nafarroako gazteek sormen eta ingurumen kontzientzia dosi handiak erakutsi dituzte.